

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Fruizko Udala****2020 ekitaldirako Aurrekontu Orokorra hasieran onartzea**

Fruizko Udalak, 2020ko martxoaren 12an egindako Ohiko Osoko Bilkuran, hasieran onartu zuen 2020 ekitaldirako Aurrekontu Orokorra, bai eta langileen Zerrenda Organikoa ere. Toki Entitateko Aurrekontuak soilik osatzen du Aurrekontu Orokorra.

Bizkaiko Lurralde Historikoko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15.1 atalarekin bat etorriz, espedientea jendaurrean jarriko da 15 egunez. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta Udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada Aurrekontu Orokorra behinbetiko onartutzat joko da.

Fruizen, 2020ko maiatzaren 25ean. — Alkatea, Ane Legarretaetxebarria Aurtenetxe